

ZOZKETAREN OINARRIAK

10 BLUETOOTH BOSE SOUNDLINK MINI II

BOZGORAILUREN ZOZKETA

LABORAL KUTXA LK-PAY APPAREN 2018-2019KO KANPAINA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

CajCaja Laboral Popular Coop. de Cr ditok - aurrerantzean LABORAL Kutxa -, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) - Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500 - duenak, hari gabeko 3 Bluetooth Bose SoundLink Mini II bozgorailu zozkatuko ditu.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta 2018ko abenduaren 3tik 2019ko urtarrilaren 31ra bitartean LK Pay appa erabiliz mugikor bidez ordainketa bat egiten badute edo LK Pay appeko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute. Parte-hartzaileek partaidetza bat lortuko dute Bizum bakoitzeko (5 gehienez) eta beste bat mugikor bidezko ordainketa bakoitzeko (5 gehienez). Guztira 10 partaidetza izan ditzakete gehienez. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketa

Zozketa 2019ko otsailaren 11n egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, kanpaina-aldiaren barruan —2018ko abenduaren 3tik 2019ko urtarrilaren 31ra— baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean. Gainera, badaezpada ordezko 3 izen aterako dira zozketan, irabazleetak batek baldintzak betetzen ez baditu ere. 10 egun balioduneko epean saridunetakoren batekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

10 Bluetooth Bose Soundlink Mini II bozgorailuren zozketa. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.